



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

KOD156 ibilgailuen eta baliabide osagarriak kudeatzeako Arduradun lanpostua zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deialdia.

Alkateak, 2024ko otsailaren 23an, 791/2024 Dekretua onetsi du, eta honako hau xedatzen du ebazpen-zatian:

Lehenengoa: KOD156 lanpostua, Ibilgailuen atala eta baliabide lagungarriak kudeatzeko arduradunarena, Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioek zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deialdia eta oinarriak onartzea.

Segundo: Deialdia iragarki-taulan eta erakundearen webgunean argitaratzeko agindua ematea.

Hirugarrena: Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua ezarritakoaren arabera.

Basaurin, 2024ko otsailaren 27an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



**BASAURIKO UDALEKO IBILGAILUEN ATALA ETA BALIABIDE LAGUNGARRIAK
KUDEATZEKO ARDURADUNAREN KOD 156 LANPOSTUA BASAURIKO
UDALEKO KARRERAKO FUNTZIONARIOEK
ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO OINARRIAK**

Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da KOD 156 lanpostua, Ibilgailuen atala eta baliabide lagungarriak kudeatzeko arduradunarena, Zerbitzu-Eginkizunetan betetzea, hutsik baitago; hainbat lanbidetako langilea, zerbitzu berezietako azpieskala, administrazio bereziko eskala, eta 1. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.

Lanpostua aldi baterako betetzeko baldintzak

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute:

– Basauriko Udaleko Ofizial kategoriako udal-brigadako karrerako funtzionarioak.

Lanpostuen zerrendan lanpostua betetzeko ezarritako baldintzak betetzea.

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo baliokidea.

– E+D gidabaimena.

Langile horiek zerbitzu aktiboan egon beharko dute, edo lanpostua gordetzea dakarten administrazio-egoeretako batean, eginkizun-gabetzea izan ezik.

Bete beharreko eginkizunak

– Udal-brigadako baliabide lagungarriak kudeatzea eta kontrolatzea, eta konponketez, ikuskapenez, aurrekontuez, erosketa berriez eta horiekin lotutako guztiaz arduratzea.

– Udal-brigadaren ibilgailu-atalarekin eta baliabide lagungarriekin lotutako baliabide materialak kudeatzea eta kontrolatzea, horiek bilatzeko, optimizatzeko eta eskuratzeko laguntza emanez.

– Gidari ofizialaren berezko zereginak betetzea.

– Tailerren behar orokorrekin eta espezifikoeekin eta horien funtzionamenduarekin lotutako ekintzak betetzea, eta, oro har, brigadaren buruak aintzat hartzen dituen behar guztiak betetzea.

Baloratu beharreko alderdiak

a) Parte-hartzaileek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira, Administrazio honek aitortutako merezimenduen ofiziozko balorazioari kalterik egin gabe. Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte hobetutako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

b) Merezimenduak honela barematuko dira:

a) Antzintasuna. 0,16 puntu edozein administrazio publikotan lan egindako zerbitzu-urte oso bakoitzeko, eta gehienez 2 puntu; ondorio horietarako kontuan hartuko dira Basauriko Udaleko karrerako funtzionario izatera iritsi aurretik egindako zerbitzu-urte aitortuak. Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko paragrafo honetan alegatutako beste zerbitzu batzuekin batera emandako zerbitzuak.

b) Lan-esperientzia, gehienez 5, Experiencia profesional máximo 5,40 puntos:
– Herri Administrazioan ofizial gisa emandako zerbitzuak: 0,20 puntu zerbitzuan emandako urte bakoitzeko edo sei hilabetetik gorako zati bakoitzeko, 1,80 puntu gehienez.
– Herri Administrazioan gidari ofizial gisa emandako zerbitzuak: 0,30 puntu zerbitzuan emandako urte bakoitzeko edo sei hilabetetik gorako zati bakoitzeko, 3,60 puntu gehienez.



Eszedentzia-egoeran emandako denbora ez da esperientzia gisa zenbatuko, seme-alabak eta senitartekoak zaintzeko eszedentzia-kasuetan izan ezik; horiek betetako azken lanpostuan zenbatuko dira.

- c) Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak, gehienez 3 puntu

1998ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako prestakuntza-ikastaro eta -jarduerak bakarrik baloratuko dira, baldin eta lotura zuzena badute lanpostuaren berezko zereginekin eta lehian den lanpostua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta trebetasunak eskuratzearekin.

Ikastaro eta jarduera horietara joan izana behar bezala egiaztatu beharko da dagokion diplomaren edo ziurtagiriaren bidez. Diploma edo ziurtagiri horrek nahitaez jaso beharko du ikastaroaren edo jardueraren iraupena eta zenbat orduz bertaratu den. Bertaratzea baremo honen arabera baloratuko da:

Gehienez 3 puntu emango dira, honela banatuta:

- 1 eta 10 ordu arteko ikastaroak: 0,025 puntu.
- 11 eta 30 ordu bitarteko ikastaroak: 0,05 puntu.
- 31 eta 50 ordu bitarteko ikastaroak: 0,10 puntu.
- 51 eta 70 ordu bitarteko ikastaroak: 0,25 puntu.
- 71 eta 90 ordu bitarteko ikastaroak: 0,33 puntu.
- 90 ordutik gorako ikastaroak: 0,75 puntu.

IVAPek, INAPek eta IEAPek antolatutako ikastaroez gain, honako hauek ere baloratuko dira: unibertsitateek, Hezkuntza Ministerioaren mendeko ikastetxeek edo Autonomia Erkidegoetako Hezkuntza Sailek emandakoak eta edozein zentro ofizialek (ministerioek, kontseilaritzek, merkataritza-ganberek, elkargo ofizialek eta abarrek) eskusiboki antolatutakoak, betiere bertaratze- edo emate-ziurtagiria zentro horiek ematen badute.

Prestakuntza Erregelamenduaren 23.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, Administrazio Publikoetarako Etengabeko Prestakuntzako IV. Akordiotik eratorritako prestakuntza-ekintza guztiak ere baloratuko dira.

Era berean, aletzen diren prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroez lehiaketaren xede den lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusi zuzena duten gaiei buruzkoak izan beharko dute.

Ikastaroetarako bertaratze-ziurtagiriak ez badu jasotzen zenbat ordu izan dituen, ezin izango da baloratu, non eta izangaiak ez duen egiaztatzen ikastaroaren iraupena, ikastaroa eman zuen erakundeak emandako ziurtagiriaren edo egiaztariaren bidez.

Ez dira baloratuko titulazio akademiko ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten parte diren ikastaroak, irakasgaiak edo jarduerak.

Eginiko ikastaroen denbora-muga 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera jarri izanaren arrazoia Basauriko Udalaren egituraren eta antolaketaren eginiko eraldaketa sakonak dira, baita araudiaren eta baliabide materialen bilakaera eta teknologia eta lan-metodo berriak ezarri izana ere. Izan ere, horiek guztiek zerbitzu berriak ematea edo zerbitzu horiek gauzatzeko modua aldatzea eragin dute.

- d) Eskatutakoa baino goragoko titulazio akademikoa, gehienez 1,50 puntu

- Batxilergoko titulua edo titulu teknikoa: 0,5 puntu.
- Goragoko maila bat lortzeko titulazio-maila jakin bat behar den kasuetan, goragoko maila duen titulua baino ez da baloratuko.

- e) Hizkuntza-eskakizuna

COD 156 Ibilgailuen eta baliabide osagarriak kudeatzeko arduradun lanpostuak
1. HE du esleituta, derrigortasun-datarik gabe.

1. HE: 0,845 puntu.

- f) Memoria edo, bestela, proba bat egitea. Gehienez 6 puntu.



Merezimendu horri gehienez 6 puntu emango zaizkio. Balorazio Batzordeak erabakiko du bietako zein egingo den proba egin edo memoria aurkeztu beharko den eguna baino gutxienez hamabost egun lehenago.

Memoria bat egiteak berekin ekarriko du lanpostuaren atazak eta horiek betetzeko beharrezko eskakizunak, baldintzak eta bitartekoak aztertzea, betiere lehiakidearen iritziz, deialdian jasotako deskribapenean oinarrituta.

Proba bat egiteak berekin ekarriko du gehienez ere bi orduko denbora-tartean lanpostuaren berezko eginkizunekin lotutako kasu praktiko bat ebatzea

Lanpostu batean lehiatzeko hautagai bakarra dagoenean eta agiri bidez frogatuta geratzen denean izangaiak lanpostuari buruzko ezagutzak eta esperientzia dituela eta lehen fasean eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditzen duela, izangaia prozesuaren bigarren fasea egitetik salbuetsita geratuko da, epaimahaiaren irizpideari jarraikiz.

Eskabideak aurkezteko epea eta tokia

Deialdietan parte hartzeko eskabideak giza baliabideen atalera zuzenduko dira 10 egun balioduneko epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Era berean, eskatzaileek giza baliabideen atalera bidali beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epearen barruan, Langileen Erregistroan jasota ez dauden merezimenduen egiaztagiri guztiak. Agiri horiek eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira.

Lanpostua betetzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak onartuko dira.

Baztertutako eskatzaileei horren berri emango zaie, arrazoiak adierazita.

Balorazio-batzordea

Merezimenduen balorazioa Balorazio Batzorde batek egingo du. Batzorde hori aukeratzekoan, haren kideen egokitasuna eta kualifikazioa bermatu beharko dira, hitza eta botoa izango baitituzte. Balorazio-batzordearen erabaki-proposamenak arrazoitu egin behar dira.

Balorazio-batzordeak eratzeko eta haien jarduna arautzeko oinarri hauetan, araudi aplikagarrian eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa beteko da.

Balorazio Batzordeak erabateko independentziaz, diskrezionaltasun tekniko eta objektibotasunez jardungo du, eta haren proposamenak lotesleak izango dira Administrazioarentzat. Balorazio-batzordeen jarduerak diskrezionaltasun teknikoa badute ere, haien ebazpenak arrazoitu egin beharko dira, araudia eta deialdietako oinarriak betez.

Zerbitzu-eginkizunen iraupena

Zerbitzu-eginkizunak indarrean jarraituko du, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean ezarritako baldintzetan, karrerako funtzionario batek behin betiko bete arte, hargatik eragotzi gabe edozein unetan atzera bota ahal izatea.